

Funtsesko baliabideak

KTK enpresak funtseko baliabide ugari izango ditu bezeroekin harremanak eramateko eta negozioa ondo funtzionatzeko:

Gure enpresaren **baliabide fisikoak** instalazioak, ibilgailuak, bulegoak eta sistema informatikoak izango dira; Instalazioak ume txiroak egongo diren lekua izango da, ibilgailuak ume txiroak Afrikatik instalazioetara eramateko edota instalioetatik Afrikara itzultzeko bisitak egiteko erabiliko ditugun gailuak izango dira, bulegoak lekuko zuzendariak eta enpresako kideek lan egingo duten lekua izango da, eta azkenik sistema informatikoetan wifi sarea lortzeko beharrezko ekipamentua, eta softwarea edukiko dugu.

Enpresaren **baliabide intelektualak** datu baseak izango dira, hauek umeen eta bertan lan egiten duten irakasleen eta langileen datuak gordetzeko erabiliko ditugu, aliantzak ere edukiko ditugu, Unicef eta Caritas-ekin.

Giza baliabideak langileak izango dira, langile mota desberdinak edukiko ditugu, zuzendariak, irakasleak, zaindariak, etb. Gure langileak ondorengo gaitasunak eduki beharko dituzte:

- **Sormena:** Irakasleak eta zaindariak sormena eduki beharko dute ideiak eta jarduerak sortu ahal izateko.
- **Ezagutza:** Irakasleak lehen mailako hezkuntzako ikasketak eta umeen arazoak eta beharra kudeatzeko gaitasuna. Psikologian ere ezagutza eta herrialdeko lege desberdinetan
- **Gaitasun komertziala:** Gobernua konbenzitu ahal izateko gure idea ona dela eta aurrera eramateko gaitasuna eduki behar dugu, bai enpresaburuek bai enpresan lan egiten duten pertsonak.

Azkenik, **finantza baliabideak** gobernuak hilabetero emango digun dirua da, Hori baino lehen, gure dirua jarri beharko dugu proiektua martxan jartzeko, bakoitzak

hasierako prezioaren %25 inbertituko ditugu , hontaz gain, bankuari kredituak eskatuko dizkiegu, beharra baldin badago.